GRAMMAR APPENDIX

Grammar Review

PRESENT SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **work**	I / You **do not (don't) work**	**Do** I / you **work**?
He / She / It **works**	He / She / It **does not (doesn't) work**	**Does** he / she / it **work**?
We / You / They **work**	We / You / They **do not (don't) work**	**Do** we / you / they **work**?

Uses	Examples	Adverbs of frequency / Time expressions
A regular habit or routine	*My sister **works** on Sundays.* (Nire arrebak igandeetan lan egiten du.)	always, usually, generally, regularly, occasionally, frequently, often, sometimes, rarely, seldom, never
A general truth or scientific fact	*Facebook **is** a popular website.* (Facebook webgune ezaguna da.)	at 1 o'clock, at night, in the morning, on Fridays, every week, once a month, how often ...?
Stative verbs	*I think she **is** very bossy.* (Oso agintzailea dela uste dut.)	

➲ *STATIVE VERBS*

Ekintzak baino egoerak adierazten dituzte eta *Present Simple* aldian erabiltzen dira. Ondorengo ezaugarriekin dute lotura:

- emozioekin eta sentimenduekin (**dislike**, **enjoy**, **hate**, **hope**, **like**, **love**, **prefer**, **want**),
- pentsamenduarekin eta iritziarekin (**believe**, **forget**, **guess**, **know**, **remember**, **think**, **understand**),
- pertzepzioarekin eta zentzumenekin (**feel**, **hear**, **see**, **smell**, **sound**, **taste**, **touch**),
- prezioekin eta neurriekin (**cost**, **measure**, **weigh**) eta
- jabetzarekin (**belong**, **have**, **own**).

Batzuek egoera eta ekintza adieraz ditzakete. Horregatik, *Present Simple* nahiz *Present Continuous* aldiarekin erabiltzen dira.

*Donna **thinks** the book is wonderful.*
(Donnak liburua zoragarria dela uste du.) [egoera]

*He **is thinking** about going to Malta in the summer.*
(Udan Maltara joatea pentsatzen du.) [ekintza]

See aditzak *Present Continuous* aldian, bizkitartean, aldez aurretik finkaturiko etorkizuneko ekintza adierazten du.

*We **are seeing** Ann tonight.*
(Ann ikusiko dugu gaur gauean.) [Hitzartu dugu jada.]

PRESENT CONTINUOUS

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I **am singing**	I **am** (I'**m**) **not singing**	**Am** I **singing**?
You **are singing**	You **are not** (**aren't**) **singing**	**Are** you **singing**?
He / She / It **is singing**	He / She / It **is not** (**isn't**) **singing**	**Is** he / she / it **singing**?
We / You / They **are singing**	We / You / They **are not** (**aren't**) **singing**	**Are** we / you / they **singing**?

Uses	Examples	Time expressions
An action which is happening now	*Greg **is reading** right now.* (Oraintxe bertan Greg irakurtzen ari da.)	now, right now, at the moment
A temporary action	*I **am studying** maths this term.* (Matematika ikasten ari naiz hiruhileko honetan.)	this year, at present, today, these days, this month
A definite plan for the near future (see page 8)	*I **am meeting** my boyfriend tonight.* (Nire mutil-lagunarekin gelditu naiz gaur gauean.)	this evening, tonight, tomorrow, next Friday / week / year

PAST SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **finished**	I / You **did not (didn't) finish**	**Did** I / you **finish**?
He / She / It **finished**	He / She / It **did not (didn't) finish**	**Did** he / she / it **finish**?
We / You / They **finished**	We / You / They **did not (didn't) finish**	**Did** we / you / they **finish**?

Uses	Examples	Time expressions
A completed action in the past	*A dog **attacked** my sister last year.* (Txakur batek eraso egin zion nire arrebari lehengo urtean.)	yesterday, last week / year, two days ago, in 2007, in the 1980s, in the 18th century, when, then
A series of completed actions in the past	*Mr Smith **climbed** the stairs and **followed** him.* (Mr Smithek eskailerak igo eta atzetik joan zitzaion.)	

PAST CONTINUOUS

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I **was visiting**	I **was not (wasn't) visiting**	**Was** I **visiting**?
You **were visiting**	You **were not (weren't) visiting**	**Were** you **visiting**?
He / She / It **was visiting**	He / She / It **was not (wasn't) visiting**	**Was** he / she / it **visiting**?
We / You / They **were visiting**	We / You / They **were not (weren't) visiting**	**Were** we / you / they **visiting**?

Uses	Examples	Time expressions
An incomplete action in progress at a specific time in the past	*At 9 o'clock that evening, he **was waiting** for the report.* (Gau horretan 9etan txostenaren zain zegoen.)	last night / week / year, at 4 o'clock
An incomplete action interrupted by another action	*As I **was speaking** on the phone, David came into the room.* (Telefonoz hitz egiten ari nintzela, David sartu zen gelan.)	when, while, as
Two incomplete actions in progress at the same time in the past	*While Janet **was walking** up the path, Martin **was parking** the car.* (Janet bidean gora zihoan bitartean, Martin autoa aparkatzen ari zen.)	

PAST PERFECT SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **had arrived**	I / You **had not (hadn't) arrived**	**Had** I / you **arrived**?
He / She / It **had arrived**	He / She / It **had not (hadn't) arrived**	**Had** he / she / it **arrived**?
We / You / They **had arrived**	We / You / They **had not (hadn't) arrived**	**Had** we / you / they **arrived**?

Uses	Examples	Time expressions
A completed action which took place before another action in the past	*By the time the police arrived, he **had already left**.* (Polizia iritsi zenerako, alde egin zuen.)	already, by the time, after, before, until, never, just

PRESENT PERFECT SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **have lived**	I / You **have not (haven't) lived**	**Have** I / you **lived**?
He / She / It **has lived**	He / She / It **has not (hasn't) lived**	**Has** he / she / it **lived**?
We / You / They **have lived**	We / You / They **have not (haven't) lived**	**Have** we / you / they **lived**?

Uses	Examples	Time expressions
An action that began in the past and continues in the present	*I **have played** basketball for two years.* (Bi urte daramatzat saskibaloian jokatzen.)	never, ever, already, just, yet, recently, lately, how long ...?, for, since, in recent years
An action that took place at an undetermined time in the past, but is connected to the present	*She **has moved** house recently.* (Etxez aldatu da orain dela gutxi.)	

FUTURE SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will allow**	I / You **will not (won't) allow**	**Will** I / you **allow**?
He / She / It **will allow**	He / She / It **will not (won't) allow**	**Will** he / she / it **allow**?
We / You / They **will allow**	We / You / They **will not (won't) allow**	**Will** we / you / they **allow**?

Uses	Examples	Time expressions
A prediction	*Vancouver **will attract** thousands of tourists.* (Vancouverrek ehunka turista erakarriko ditu.)	this evening, in an hour, at 2 o'clock, later, tomorrow, next month / year, soon, in a few weeks, in the future, on the 1st of May
A planned schedule	*The tour **will begin** at 9.00 am.* (Bira goizeko 9etan hasiko da.)	
A spontaneous decision	*I am too tired to walk. I**'ll take** a taxi.* (Nekatuegi nago oinez joateko. Taxia hartuko dut.)	

BE GOING TO

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I **am going to buy**	I **am** (I'm) **not going to buy**	**Am** I **going to buy**?
You **are going to buy**	You **are not (aren't) going to buy**	**Are** you **going to buy**?
He / She / It **is going to buy**	He / She / It **is not (isn't) going to buy**	**Is** he / she / it **going to buy**?
We / You / They **are going to buy**	We / You / They **are not (aren't) going to buy**	**Are** we / you / they **going to buy**?

Uses	Examples	Time expressions
A planned action for the future	*We **are going to spend** our next holiday in London.* (Londresen igaroko dugu gure hurrengo oporraldia.)	this evening, later, in an hour, at 4 o'clock, tomorrow, soon, next month / year, in a few weeks, on the 8th of May
An action that is about to happen or a future event based on present evidence	*Be careful! You **are going to fall**!* (Kontuz ibili! Erori egingo zara!) *There's a lot of material - this exam **is going to be** difficult!* (Gai asko dago: azterketa hau zaila izango da!)	

➲ *PRESENT CONTINUOUS* ETORKIZUN ESANAHIAREKIN

Aldez aurretik finkatuta egonik, etorkizun hurbilean gauzatuko diren ekintzak adierazten ditu. Hitzartutako egitasmo pertsonalekin erabiltzen ohi da.

Askotan **be going to** egiturak adierazten duen ideia bera adierazten du.

*I**'m washing / going to wash** my hair this evening.*
(Gaur gauean ilea garbituko dut.)

Kontrara, asmoak edo erabakiak adierazi nahi dituzunean, komenigarria da **be going to** erabiltzea.

*I**'m going to talk** to him about her.*
~~*I**'m talking** to him about her.*~~
(Hitz egin nahi diot neskari buruz.) [asmoa nabarmendu nahi da]

*I**'m seeing** Phil tonight.*
(Gaur gauean ikusiko dut Phil.) [egitasmo hitzartua nabarmendu nahi da]

Etorkizun esanahia duen *Present Continuous* aldiak etorkizuneko denbora-esamoldea erabiliko du, ez orainaldikoa, eta horrek adierazten digu ez dela egiazko *Present Continuous* aldia.

*He **is studying** history **at the moment**.*
(Historia ikasten ari da une honetan.) [orainaldia]

*He **is signing** a contract **tomorrow**.*
(Bihar doa kontratua sinatzera.) [etorkizuna]

FUTURE PERFECT SIMPLE

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will have eaten**	I / You **will not (won't) have eaten**	**Will** I / you **have eaten**?
He / She / It **will have eaten**	He / She / It **will not (won't) have eaten**	**Will** he / she / it **have eaten**?
We / You / They **will have eaten**	We / You / They **will not (won't) have eaten**	**Will** we / you / they **have eaten**?

Uses	Examples	Time expressions
A completed action at a certain future time	*By the time he's ready to go, the shops **will have closed**.* (Irteteko prest dagoenerako, dendak itxita egongo dira.)	by this time next week, by 3 o'clock, by the end of ..., by then, by August, in four months

FUTURE CONTINUOUS

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **will be travelling**	I / You **will not (won't) be travelling**	**Will** I / you **be travelling**?
He / She / It **will be travelling**	He / She / It **will not (won't) be travelling**	**Will** he / she / it **be travelling**?
We / You / They **will be travelling**	We / You / They **will not (won't) be travelling**	**Will** we / you / they **be travelling**?

Uses	Examples	Time expressions
An action in progress at a certain future time	*We**'ll be visiting** her on Thursday.* (Hura bisitatzen izango gara ostegunean.)	at this time tomorrow, at this time next ..., on Thursday, in the next decade

1. Fame

PRESENT PERFECT CONTINUOUS

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **have been working**	I / You **have not been working**	**Have** I / you **been working**?
He / She / It **has been working**	He / She / It **has not been working**	**Has** he / she / it **been working**?
We / You / They **have been working**	We / You / They **have not been working**	**Have** we / you / they **been working**?

Uses	Examples	Time expressions
An action that started in the past and continues in the present	*I **have been working** as a photographer for a year.* (Urte bete daramat argazkilari lanetan.) *How long **have** you **been waiting**?* (Zenbat denboran egon zara zain?)	for a year, since 2002, how long ...?, all night / morning / day / week ...
An action whose results are still apparent	*I am tired. I **have been signing** autographs all night.* (Nekatuta nago. Gau osoan aritu naiz autografoak sinatzen.)	

EGITURA

Baiezkoa: subjektua + **have** / **has been** + **–ing** bukaera daraman aditz nagusia.

Ezezkoa: subjektua + **have** / **has not** (edo **n't**) + **been** + **–ing** bukaera daraman aditz nagusia.

Galderazkoa: **have** / **has** + subjektua + **been** + **–ing** bukaera daraman aditz nagusia.

ERABILERAK

- Orain dela hainbat denbora hasi eta oraindik dirauten ekintzak adierazteko. *Present Perfect Continuous* aldiak ekintzaren iraupena nabarmentzen duenez, itzultzeko garaian "eraman + aditz nagusia -t(z)en" egituraz balia gaitezke.

  *The actress **has been acting** for two years.*
  (Antzezleak bi urte daramatza antzezten.)
- Bukatu berriak badira ere, emaitzak oraindik agerian dituzten ekintzak adierazteko.

PAST PERFECT CONTINUOUS

FORM

Affirmative	Negative	Interrogative
I / You **had been waiting**	I / You **had not been waiting**	**Had** I / you **been waiting**?
He / She / It **had been waiting**	He / She / It **had not been waiting**	**Had** he / she / it **been waiting**?
We / You / They **had been waiting**	We / You / They **had not been waiting**	**Had** we / you / they **been waiting**?

Uses	Examples	Time expressions
An action which continued up to another past action	*His fans **had been waiting** for three hours when he arrived.* (Haren jarraitzaileek hiru ordu zeramatzaten zain heldu zenean.)	for hours, since last April, all morning ... when, until, before ...

EGITURA

Baiezkoa: subjektua + **had been** + **–ing** amaiera daraman aditz nagusia. Forma bera du pertsona guztietan.

Ezezkoa: subjektua + **had not** (edo **n't**) **been** + **–ing** amaieradun aditz nagusia.

Galderazkoa: **had** + subjektua + **been** + **–ing** bukaera daraman aditz nagusia.

ERABILERAK

- Lehenaldiko ekintza laburren aurretik luzaroan gertatzen ari ziren ekintzak adierazteko. "Eraman, aritu, egon" aditzen iragana dugu maiz aditz-aldi hau itzultzeko baliabidea.

  *I **had been trying** to find an agent for months until finally I found one.* (Hilabeteak neramatzan agente baten bila, azkenean bat aurkitu nuen arte.)

Ohikoena bi ekintzok juntagailu batez lotuak aurkitzea da: denborazkoa izan daiteke hori, (**when**, **until**, **before**), kontzesiboa (**although**) edo kausazkoa (**because**).

*The play was a failure **because** the main character **had been drinking** all night.*
(Antzezlana porrota izan zen, antzezle nagusia edaten aritu zelako gau osoan.)

Oharra:

Perfect Continuous aldiarekien erabiltzen diren denbora-esamoldeek, bai orainaldian eta bai iraganean, denbora-aldia adierazi behar dute eta ez une zehatza.

Perfect Continuous aldia, bestalde, ez da **know** edo **want** bezalako aditz estatikoekin erabiltzen.

~~*He **has been wanting** to be a singer since he was four.*~~
*He **has wanted** to be a singer since he was four.*
(Lau urte zituenetik nahi izan du abeslari izatea.)

Gauza bat zenbat aldiz gertatu den konta badaiteke, ez dugu *Perfect Continuous* aldia erabiliko.

~~*He **has been trying** to call her four times today.*~~
*He **has tried** to call her four times today.*
(Lau aldiz saiatu da hari deitzen gaur.)

➲ GERUNDIOA ETA INFINITIBOA

GERUNDIOA

Ingelesez **–ing** bukaera duen adizkia da, eta izenaren funtzioa betetzen duena ondorengo kasuetan:

- Zenbait aditzen osagai zuzen gisa: **continue**, **deny**, **detest**, **dislike**, **enjoy**, **finish**, **hate**, **like**, **love**, **miss**, **prefer**, **recommend**, **suggest**, etab.

  *I **hate going** to celebrity parties.*
  (Ospetsuen festetara joatea gorroto dut.)
- Preposizioen ondotik.

  *We talked **about hiring** a bodyguard.*
  (Bizkartzaina kontratatzeaz hitz egin genuen.)
- Aditz-forma batzuen ondotik:
  be used to / **get used to**, **can't help**, **can't stand**, **don't mind** / **wouldn't mind**, **feel like**, **it's no use**, **look foward to**, **spend** (**time**), etab.

  *I **wouldn't mind being** famous.*
  (Ez litzaidake axolako ospetsua izatea.)
- Perpauseko subjektu bezala, ekintzei buruz era orokorrean ari garenean.

  ***Being** a sports star is not easy.*
  (Kiroletako izarra izatea ez da erraza.)

INFINITIBOA

Aurretik **to** daraman adizkia dugu. Honela erabiltzen da:

- Subjektu bezala ekintza konkretu betez ari garenean.

  ***To leave** now would be a mistake.*
  (Orain alde egitea akatsa litzateke.)
- Ondorengoak bezalako aditzen atzetik: **agree**, **appear**, **choose**, **decide**, **hope**, **learn**, **plan**, **promise**, **refuse**, **seem**, **try**, **want**, **wish**, **expect**, **manage**, etab.

  *He **refused to talk** about his private life.*
  (Bere bizitza pribatuaz ez zuela hitz egingo esan zuen.)
- Zenbait adjektiboren (**busy**, **happy**, **ready**, **tired**, **willing**, etab.) eta adberbioren ondotik (**slowly**, **fast**, **low**, etab.).

  *I am too **tired to see** a film tonight.*
  (Nekatuegi nago film bat ikusteko gaur gauean.)
- **Advise**, **help**, **invite**, **persuade**, **teach**, **tell** eta **warn** bezalako aditzen zeharkako osagarriaren ondotik.

  *She **persuaded me to join** the cast.*
  (Aktore-taldera elkartzeko konbentzitu ninduen.)

Hala ere, **make** nahiz **let** aditzek eta pertzepzio-aditz batzuek (**hear**, **feel**, **see**, etab.) aditzoina daramate ondotik.

*The police didn't **let** me **approach** the stage.*
(Poliziak ez zidan utzi eszenatokira hurbiltzen.)

GERUNDIOZ ETA INFINITIBOZ JARRAITURIKO ADITZAK

Aditz batzuen ondotik gerundioa nahiz infinitiboa jar daiteke, esanahia batere aldatzen ez delarik, adibidez, **begin**, **forbid**, **intend**, **propose** edo **start**:

*I started **to act** / **acting** two years ago.*
(Orain dela bi urte hasi nintzen antzezten.)

Love, **like**, **prefer** eta **hate** aditzek, berriz, gerundioa eta infinitiboa onartzen dituzte ondotik, baina esanahia zertxobait aldatu egiten da:

- **Love** / **like** / **hate** / **prefer** + **gerundioa** erabiliko dugu esanahia orokorra denean.

  *I **love watching** TV.*
  (Ikaragarri gustatzen zait telebista ikustea.)
- **Love** / **like** / **hate** / **prefer** + **infinitiboa** erabiliko dugu egoera edo denbora zehatz baten gainean ari garenean.

  *I **hate to tell** you this, but I haven't got tickets for the show.*
  (Gorroto dut esan beharra, baina ez dut ikustaldirako sarrerarik.)

Beste aditz batzuek, aldiz, esangura desberdinak dituzte, gerundioa ala infinitiboa, zer daramaten ondotik. Honatx adibide batzuk:

- ***forget*** + **gerundioa** ezezko esaldietan erabiltzen da, iraganean egindako zerbait ahaztea ezinezkoa dela adierazteko.

  *I'll never **forget meeting** Angelina Jolie.*
  (Inoiz ez dut ahaztuko Angelina Jolie ezagutu nuela.)

- ***forget*** + **infinitiboa** zerbait egitea ahaztu zaigula adierazteko.

  *I **forgot to ask** her about her last album.*
  (Bere azken diskoari buruz galdetzea ahaztu zitzaidan.)
- ***remember*** + **gerundioa** iraganean egindako zerbait gogoratzen dugula adierazteko.

  *I **remember giving** them their tickets.*
  (Gogoratzen naiz txartelak eman nizkiela.)
- ***remember*** + **infinitiboa** zerbait egin behar dela gogorarazteko.

  ***Remember to take** a picture of the singer before you go.*
  (Gogoratu abeslariari argazkia ateratzea alde egin aurretik.)
- ***regret*** + **gerundioa** iraganean egindako zerbaiten damua adierazteko.

  *He **regrets marrying** a celebrity.*
  (Damu da ospetsu batekin ezkondu izana.)
- ***regret*** + **infinitiboa** ondoren esan behar duzuna sentitzen duzula adierazteko.

  *I **regret to tell** you that all the tickets have been sold.*
  (Sentitzen dut, baina sarrera guztiak saldu egin dira.)
- ***stop*** + **gerundioa** zerbait egiteari utzi diogula adierazteko.

  *Amy **stopped going** to festivals last year.*
  (Amyk jaialdietara joateari utzi zion iaz.)
- ***stop*** + **infinitiboa** beste gauza bat egiten hasteko, ekintza bat eten egin behar dela adierazteko.

  *Can we **stop to have** a coffee?*
  (Geldi al gaitezke kafe bat hartzeko?)

⊃ VERB COLLOCATIONS

Aditz batzuek berauekin bakarrik loturiko hitz jakinak erabiltzen dituzte ondotik, eta, elkarrekin, **collocation** izeneko esamoldeak osatzen dituzte. Oso arruntak dira ingeles mintzatuan, eta, ondorioz, buruz ikastea komeni da. Adibidez:

catch sight of (begiztatu)
catch a bus (autobusa hartu)
catch someone's eye (norbaiti deigarria egin)

take for granted (ziurtzat jo, onartu)
take pride in (harrotasunez bete)
take by surprise (ezustean harrapatu)

go bald (burusoiltzen joan)
go missing (desagertu, galdu)
go mad (erotu)

⊃ ATZIZKIAK

Atzizkiak hitz batzuei gehitzen dizkiegun bukaerak dira, horrela, beste hitz berri batzuk sortzeko.

IZENAK OSATZEKO ATZIZKIAK

Aditzetatik izenak osatzeko atzizkien artean erabilienak **–ment**, **–tion** / **–sion** eta **–er** / **–or** ditugu.

agree (hitzartu)	*agree**ment*** (hitzarmen)
invite (gonbidatu)	*invita**tion*** (gonbidapen)
conclude (ondorioztatu)	*conclu**sion*** (ondorio)
run (korrika egin)	*runn**er*** (korrikalari)
sail (nabigatu)	*sail**or*** (nabigatzaile)

Izenak osatzeko beste atzizki batzuk **–ity**, **–ship**, **–ness**, **–ence** / **–ance**, **–ian** eta **–th** dira; hauek adjektiboei, aditzei edota beste izen batzuei erants diezazkiekegu.

personal (pertsonal)	*personal**ity*** (nortasun)
friend (lagun)	*friend**ship*** (adiskidetasun)
happy (zoriontsu)	*happi**ness*** (zoriontasun)
obedient (obediente)	*obedi**ence*** (obedientzia)
annoy (eragotzi)	*annoy**ance*** (eragozpen)
music (musika)	*music**ian*** (musikalari)
strong (indartsu)	*streng**th*** (indar)

ADJEKTIBOAK OSATZEKO ATZIZKIAK

–ed eta **–ing** bukaerak aditzetatik adjektiboak osatzeko atzizkiak dira. Lehenengoarekin, **–ed** bukaera duen adjektiboarekin, deskribatuko dugu pertsona edo gauza batek ondorio zehatz bat sentitzen edo jasaten duela; **–ing** amaieradun adjektiboarekin, berriz, ondorio hori eragiten duen pertsona edo gauza.

bore (aspertu)	*bor**ed*** (asperturik)
	*bor**ing*** (aspergarri)
amaze (harritu)	*amaz**ed*** (harrituta)
	*amaz**ing*** (harrigarri)

Izen batzuek **–ful** eta **–less** atzizkiak hartzen dituzte, eta sortzen diren adjektiboen esanahia argitzen laguntzen digute, **–ful** atzizkiak "-ekin" esan nahi baitu eta **–less** atzizkiak "gabe".

care (ardura)	*care**ful*** (arduratsu)
	*care**less*** (arduragabe)

Hauez gain, **–ous**, **–al**, **–able** / **–ible**, **–ive** eta **–ant** / **–ent** atzizkiak gehituta, adjektibo gehiago lor ditzakegu.

danger (arrisku)	*danger**ous*** (arriskutsu)
nation (nazio)	*nation**al*** (nazional)
predict (aurresan)	*predict**able*** (aurresan daitekeena)
reverse (alderantzizko)	*revers**ible*** (alderanzgarri)
attract (erakarri)	*attract**ive*** (erakargarri)
resist (iraun)	*resist**ant*** (iraunkor)
confide (fidatu)	*confid**ent*** (fidakor)

2. Going Green

MODALAK

Modal	Uses	Examples
can	ability	*Most people **can do** something to protect the environment.* (Jende gehienak egin dezake zerbait ingurumena babesteko.)
	request	***Can** I **join** your group?* (Zure taldera elkartu al naiteke?)
	suggestion	*Teachers **can encourage** students to ride bikes to school.* (Irakasleek anima ditzakete ikasleak eskolara bizikletaz etortzera.)
	possibility	*I **can lend** you my new electric car.* (Nire auto elektriko berria utz diezazuket.)
be able to	ability, possibility	*I **was able to install** solar panels on the roof.* (Eguzki-panelak teilatuan instalatzeko gai izan nintzen.)
can't	inability	*The mayor **can't (cannot) solve** our pollution problem.* (Alkateak ezin du gure kutsadura-arazoa konpondu.)
	prohibition	*You **can't throw** plastic in this bin.* (Ontzi honetara ezin duzu plastikorik bota.)
	disbelief	*That **can't be** Bob's car. He doesn't drive.* (Horrek ezin du Boben autoa izan. Ez daki gidatzen.)
could	past ability	*She **could run** very fast when she was a child.* (Oso azkar egin zezakeen korrika umetan.)
	polite request	***Could** you **water** my plants, please?* (Nire landareak urezta al zenitzake, arren?)
	polite suggestion	*You **could choose** organic food next time.* (Jaki organikoa hauta zenezake hurrengoan.)
	possibility	*The weather forecast **could be** wrong.* (Eguraldiaren iragarpena okerra izan zitekeen.)
may / might	possibility	*Peter **might join** Greenpeace.* (Baliteke Peter Greenpeaceko kide egitea.)
may	polite request	***May** I **leave** these plastic bottles here, please?* (Plastikozko botila hauek hemen utz al ditzaket, mesedez?)
should / ought to	advice, opinion	*We **should / ought to keep** the sea clean.* (Itsasoa garbi eduki beharko genuke.)
need to	obligation, necessity	*I **need to find out** what the weather will be like tomorrow.* (Bihar zer eguraldi egingo duen jakin beharra dut.)
have to	obligation, necessity	*We **have to avoid** using plastic products.* (Plastikozko produktuen erabilera saihestu beharra dugu.)
must	obligation, strong necessity	*We **must reduce** carbon emissions to slow down climate change.* (Karbono isuriak murriztu beharra dugu klima-aldaketa atzeratzeko.)
	strong belief	*Sam **must feel** terrible after seeing all that plastic in the river.* (Sam oso gaizki sentituko da plastiko hori guztia ibaian ikusita.)
mustn't	prohibition	*You **mustn't waste** water.* (Ez duzu ura alferrik galdu behar.)
don't have to	lack of obligation / necessity	*You **don't have to worry** about swimming here. This river is not polluted.* (Ez duzu zertan kezkatu hemen igeri egiteagatik. Ibai hau ez dago kutsatua.)
needn't	lack of obligation / necessity	*You **needn't wash** the vegetables. They are clean.* (Ez daukazu barazkiak garbitu beharrik. Garbi daude.)
would	formal request	***Would** you **open** the window, please?* (Leihoa irekiko al zenuke, mesedez?)
	offer	***Would** you **like** some more water?* (Ur gehiago nahi al duzu?)
shall	offer, suggestion	***Shall** I **help** you with your environmental research?* (Laguntzerik nahi al duzu ingurumenaren ikerketarekin?)

EGITURA

Modalek honako ezaugarri hauek dituzte:
- Aldagaitzak dira, horrenbestez, forma bera dute pertsona guztiekin eta ez dira jokatzen.
- Ez dute **do** / **does** laguntzailearen beharrik ezezko eta galderazko formak osatzeko.
- Jarraian aditzoinak dituzte beti.

Be able to, **have to** eta **need to** aditzek ez dituzte ezaugarri horiek guztiak; bai, ordea, aditz modalen erabilera batzuk.

ERABILERAK

can
- Trebetasuna edo gaitasuna adierazteko.
- Eskaerak egiteko, baimena eman eta eskatzeko.
- Iradokizunak egiteko.
- Posibilitatea azaltzeko.

be able to
- **Can** modalak duen adiera bera du, baina **can** *Present Simple* aldian bakarrik erabil daiteke; beraz, gainontzeko aditz-denboretan **be able to** aditzaz baliatuko gara.

can't
- Trebetasun edo gaitasun eza adierazteko.
- Debekua adierazteko.
- Ezezko ondorioa edo zerbait ezinezkoa den ziurtasuna adierazteko.

could
- Trebetasuna edo gaitasuna iraganean adierazteko.
- **Can** aditzarekin baino modu jasoagoan zerbait eskatzeko.
- Iradokizunak egiteko, baina ez **can** aditzarekin bezain zuzenak.
- **Can** aditzarekin baino posibilitate urriagoa adierazteko.

may* / *might
- Zerbait gertatzeko posibilitatea adierazten dute. Posibilitatea urriagoa denean, **might** erabiltzen da.
- **May**, halaber, baimena eman, eskatu edo ukatzeko erabiltzen da, eta eskaerak **can** aditzarekin baino era jasoagoan egiteko ere bai.

should* / *ought to
- Aholkuak eta gomendioak emateko erabiltzen dira biak.
- **Ought to**, ordea, kasik ez da erabiltzen ezezko eta galderetan.
- **Should** da bietan erabiliena.

need to* / *needn't
- **Need to** baiezko eran erabiltzen da obligazioa edo beharra adierazteko, **have to** aditzak bezalaxe.
- **Needn't** obligaziorik eta beharrik eza adierazteko erabiltzen da, **don't have to** bezala.

must* / *have to
- Obligazioa eta beharra adierazteko.
- **Must** orainaldian bakarrik erabiltzen da eta **have to** gainontzeko aditz-denboretan.
- Autoritatea duten pertsonek **must** erabiltzen dute, **have to** aditzak adierazten duen obligazioa ez baita hain indartsua.
- **Must** orainaldiko gertakizun bati buruzko ondorio logikoak adierazteko ere erabiltzen da ("antza", "nonbait").

mustn't
- Debekua adierazten du.

don't have to
- Obligazio eta beharrik eza adierazten du ("ez eduki zertan", "beharrik ez").

would
- Galderetan norbaiti zerbait egin dezan eskatzeko erabiltzen da.
- **Like** gehituz, zerbait eskaintzeko eta gonbidatzeko erabiltzen da.

shall
- Galderetan laguntza eskaintzeko eta iradokizunak egiteko erabiltzen da.

⊃ *PHRASAL VERBS*

Aditz hauek partikula bat edo gehiago izaten dute ondotik (preposizioak, adberbioak edo biak), eta elkarrekin esanahi berria hartzen dute, bakarka zuten esanahia ez den beste bat. Iragankorrak edo iragangaitzak izan daitezke.

*This song **brings back** some memories.*
(Kanta honek oroitzapenak ekartzen dizkit.)

*I was late because my car **broke down.***
(Berandu iritsi nintzen autoa matxuratu zitzaidalako.)

Iragankor gehienen kasuan, osagai zuzena jar daiteke aditzaren eta partikularen artean. Osagai hori izena bada, jar daiteke tartean edo atzean, baina izenordaina bada, derrigorrez tartean jarri behar da.

*I'm going to **pick up** my brother at the station.*
(Anaia jasotzera noa geltokira.)

*I'm going to **pick** my brother **up** at the station.*
*I'm going to **pick** him **up** at the station.*

Nolanahi den, iragankor batzuk, iragangaitz guztiak eta bi partikulez osatuak direnak banaezinak dira.

*He is **looking for** his sweets / them.*
(Goxokien / beraien bila dabil.)

Aditz batzuek partikula desberdinak onartzen dituztenez, **phrasal verbs** desberdinak osatzen dituzte.

start out (hasi)
start over (berriro hasi)
start up ((negozioa) antolatu)

Gainera, **phrasal verbs** askok esanahi bat baino gehiago dituzte:

break down (matxuratu, hondatu; negarrez hasi)
pick up (ikasi, bereganatu; jaso; hobetu; osatu)
bring up (hazi, hezi; planteatu, gaia atera)

MODAL BURUTUAK

Modal Perfect	Uses	Examples
must have	Certainty that something was true	*He **must have been** upset when all his crops were destroyed.* (Atsekabetu egingo zen uzta guztia hondatu zitzaionean.)
may / might have	A guess about a past action or possibility that something was true	*She **may / might have forgotten** to throw out the rubbish.* (Agian ahaztu egingo zitzaion zaborra botatzea.)
could have	Ability to do something in the past which in the end was not done	*He **could have joined** our protest.* (Gure protestarekin bat egiterik izan zuen.)
couldn't have	Certainty that something did not happen, disbelief	*They **couldn't have predicted** the tornado. It was sunny.* (Ezinezkoa zitzaien tornadoa aurreikustea. Eguzkia zegoen.)
would have	Desire to do something in the past which in fact could not be done	*I **would have gone** to the demonstration, but I was very busy.* (Manifestaziora joateko asmoa nuen, baina oso lanpetua nengoen.)
should / shouldn't / ought to have	Criticism or regret after an event	*You **shouldn't / should / ought to have warned** me earlier.* (Lehenago ohartarazi behar ninduzun. / Ez ninduzun lehenago ohartarazi behar.)
needn't have	An unnecessary past action	*You **needn't have picked** the children **up**. I was going to do it.* (Ez zenuen zertan umeak jaso. Ni nintzen hori egitekoa.)

ERABILERAK

***must have* + partizipioa**
- Gertatutako ekintza batekiko ondorio logikoa edo ustea azaltzeko erabiltzen da.

***may / might have* + partizipioa**
- Gertatutako zerbaiti buruz iragarpenak egiteko erabiltzen da.
- Zerbait egia izan daitekeela adierazten du.

***could have* + partizipioa**
- Iraganean zerbait egin zitekeen arren, azkenean ez zela egin adierazten du.

***couldn't have* + partizipioa**
- Zerbait gertatu izana ezinezkoa dela adierazteko.

***would have* + partizipioa**
- Iraganean zerbait egin nahi izan zela, baina kanpoko baldintzak medio, egiterik ez zela izan adierazten du.

***should / ought to have* + partizipioa**
- Gertatutako zerbaiti buruzko kexa.
- Espero genuena bete ez delako pena adieraz dezakegu.

***shouldn't have* + partizipioa**
- Iraganeko gertakizun bati buruzko iritzi kritikoa adierazten du, ez zuela gertatu behar adieraziz.

***needn't have* + partizipioa**
- Egin zena egin beharrik ez zegoela adierazten du.

➲ *SHOULD / HAD BETTER*

EGITURA

Baiezkoa: subjektua + **had better** + aditzoina. "Hobe duzu -t(z)ea" adiera du.

*You **had better** (You**'d better**) **use** public transport.*
(Hobe duzu garraio publikoa erabiltzea.)

Ezezkoa: subjektua + **had better not** + aditzoina.

*We**'d better not buy** that product. It's not environmentally friendly.*
(Hobe dugu produktu hori ez erostea. Ez du ingurumena zaintzen.)

Galderakoa: ez da galderetan erabiltzen.

ERABILERAK

Ikusi duzun bezala, **should** erabiltzen da gure ustez zer egin behar litzatekeen adierazteko eta aholkua nahiz iritzia emateko. Gauza bera adierazteko guztiz arrunta den beste era bat ere badugu: **had better** (edo **'d better** forma laburtua).

Nolanahi den, **should** aditzak ez duen erabilera bat ere badu bigarren era honek, abisua emateko erabiltzen baita. Kasu honetan "Ez... gero..." egituraren parekoa da.

*You**'d better use** energy-efficient light bulbs!*
(Hobe duzu kontsumo urriko bonbillak erabiltzea.)

*You**'d better not throw** that in the river!*
(Ez gero hori ibaira bota!)

3. Online World

BOZ PASIBOA

Tense	Active	Passive
Present Simple	*Amazon **sells** books online.*	*Books **are sold** online by Amazon.*
Past Simple	*Amazon **sold** books online.*	*Books **were sold** online by Amazon.*
Future Simple	*Amazon **will sell** books online.*	*Books **will be sold** online by Amazon.*
Present Continuous	*Amazon **is selling** books online.*	*Books **are being sold** online by Amazon.*
Past Continuous	*Amazon **was selling** books online.*	*Books **were being sold** online by Amazon.*
Present Perfect Simple	*Amazon **has sold** books online.*	*Books **have been sold** online by Amazon.*
Past Perfect Simple	*Amazon **had sold** books online.*	*Books **had been sold** online by Amazon.*
Modals	*Amazon **should sell** books online.*	*Books **should be sold** online by Amazon.*
Modal Perfects	*Amazon **could have sold** books online.*	*Books **could have been sold** online by Amazon.*
have to	*Amazon **has to sell** books online.*	*Books **have to be sold** online by Amazon.*
be going to	*Amazon **is going to sell** books online.*	*Books **are going to be sold** online by Amazon.*

FORMA

Baiezkoa: subjektua + **to be** + aditz nagusiaren partizipioa.

Ezezkoa: subjektua + **to be** + **not** (edo **n't**) + aditz nagusiaren partizipioa.

Perpausa aditz modalarekin, *Future Simple* aldiarekin edo adizki elkartu batekin osatuta badago, aditz modalari, **will** partikulari edo **have** / **has** aldaerei **not** (edo **n't**) gehituko diogu.

*The computer **mustn't be restarted** yet.*
(Ordenagailua ezin da oraindik berrabiarazi.)

Galderazkoa: **to be** + subjektua + aditz nagusiaren partizipioa.

Perpausa aditz modalarekin, *Future Simple* aldiarekin edo adizki elkartu batekin osatua badago, perpaus pasiboa modalarekin edo laguntzailearekin hasiko dugu, aktiboan bezalaxe.

***Has** the new video game already **been launched**?*
(Bideo-joko berria kaleratu al da jada?)


Galdetzailedun galderek ere aditz laguntzailearen eta subjektuaren arteko hurrenkera aldatu egiten dute, galdetzaileak subjektu-funtzioa duenean izan ezik.

***Where will** the new program **be purchased**?*
(Non erosi ahal izango da programa berria?)

***Who will be chosen** as prime minister?*
(Nor aukeratuko dute lehen ministro?)

➲ NOLA BILAKATU PERPAUS AKTIBOA PASIBO

Perpaus aktibo bat pasibo nola bilakatzen den ikasi aurretik, jakin beharra dago boz pasiboa askoz arruntagoa dela ingelesez euskaraz baino. Horregatik, itzultzeko garaian aditza boz aktiboan uztea hobesten da, forma inpertsonalak hautatuz edo hitzen hurrenkera aldatuz. Ondoren agertzen den eskeman ikus dezakezu perpaus aktiboa pasibo nola bihurtzen den.



(Ordenagailua konpondu du teknikariak.)

- Perpaus aktiboan aditzaren ondoan dagoen lehen osagarria bihurtuko da subjektu, dela osagarri zuzena dela zeharkakoa.

  *We **will give** a computer to Paul.*
  ***A computer will be given** to Paul.*
  (Ordanagailu bat jasoko du Paulek.)

  Bi osagarri daudenean, zeharkakoa subjektu bilakatzea da arruntena ingelesez.

  ***Paul will be given** a computer.*

  Zeharkako osagarria izenordain objektua bada, izenordain subjektu formara pasatuko dugu.

  *We **will give** him a computer.*
  ***He will be given** a computer.*

- Perpaus aktiboan aditz nagusiak zuen denboran jarriko dugu **to be** aditza, eta aditz nagusia, berriz, partizipioan.

  *She **is deleting** my files.*
  *My files **are being deleted**.*
  (Nire artxiboak borratzen ari dira.)

  Aditz modalak eta **be going to** egitura ez dira aldatzen, hauei darraien aditza baita pasiboan jartzen dena.

  *The teacher **can use** tutorials.*
  *Tutorials **can be used** by the teacher.*
  (Tutoretzak erabil ditzake irakasleak.)

- Subjektua esaldiaren bukaerara pasatuko dugu, aurretik **by** preposizioa daramala. Eta pertsona-izenordaina bada, dagokion izenordain objektuaz trukatu behar da.

ERABILERAK

- Ekintza burutzen duen subjektua baino garrantzitsuagoa ekintza bera dela nabarmendu nahi denean erabiltzen da, subjektua garrantzi gutxikoa delako, ezezaguna delako edo aipatu nahi ez delako.

  *Somebody **bought** the new device.*
  *The new device **was bought**.*
  (Gailu berria erosi zuten.)

- **Say**, **think**, **believe**, **know** edo **report** bezalako aditzekin bi pasibo egitura desberdin erabil ditzakegu:

  - Bata honela eratzen da: **it** izenordainaz eratutako egitura inpertsonala + goiko aditzetako bat pasiboan dela + **that**, subjektua eta aditza dituen perpausaz jarraitua. Honelakoak itzultzeko, boz aktiboko egitura inpertsonaletara joko dugu: "esaten da / uste da / susmoa da..."; **know** bakarrik itzul daiteke boz pasiboan.

    ***It is said that** you can google anybody.*
    (Google-n edonor bila dezakezula esaten da.)

    ***It is known that** some of the information on Wikipedia is not accurate.*
    (Jakinekoa da Wikipediako hainbat informazio ez dela zehatza.)

  - Bestea honela eratzen da: subjektua + goiko aditzetako bat pasiboan dela + infinitiboa. Honelakoak itzultzerakoan ere forma inpertsonaletara edo subjektu orokorretara joko dugu: "jendeak", "mundu guztiak", etab.

    *Her new blog **is said to be** very successful.*
    (Bere blog berria oso arrakastatsua dela esaten du jendeak.)

- **Consider** aditzak bigarren egitura bakarrik onartzen du, eta itzultzerakoan "-tzat jotzen / hartzen da" egitura edo antzekoak hautatuko ditugu.

  *Her new blog **is considered to be** very successful.*
  (Bere blog berria arrakastatsutzat jotzen da.)

➲ ADITZ ARAZLEAK: *HAVE / GET + SOMETHING + DONE*

Honako egitura **have** / **get** aditzak + izena + partizipioa, norbaiti eskatutako ekintzak adierazteko erabiltzen da.

*Peter is going to **have / get** his website **updated**.*
(Peter bere webgunea berritzera doa.) [beste pertsona batek egingo dio]

Egitura honek esanahi pasiboa du, erdian dagoen osagarri zuzenak partizipioan dagoen aditzaren bitartez adierazitako ekintza jasotzen baitu. Euskaratzerakoan, ordea, boz aktiboa erabiliko dugu.

*My computer crashed, so I **had** it **repaired** yesterday.*
(Ordenagailua hondatu zitzaidanez, konponarazi egin nuen atzo.)

Bi aditzok bereizi gabe erabiltzen badira ere, **get** informalagoa eta arruntagoa da ingeles mintzatuan.

*I **got** my computer **repaired** last week.*
(Ordenagailua konpondu nuen / zidaten joan den astean.)

4. Sense It

ZEHAR ESTILOA

Tense	Direct Speech	Reported Speech
Present Simple	*We **eat** tasty food.*	*She said that they **ate** tasty food.*
Past Simple	*We **ate** tasty food.*	*She said that they **had eaten** tasty food.*
Future Simple	*We **will eat** tasty food.*	*She said that they **would eat** tasty food.*
Present Continuous	*We **are eating** tasty food.*	*She said that they **were eating** tasty food.*
Past Continuous	*We **were eating** tasty food.*	*She said that they **had been eating** tasty food.*
Present Perfect Simple	*We **have eaten** tasty food.*	*She said that they **had eaten** tasty food.*
Present Perfect Continuous	*We **have been eating** tasty food.*	*She said that they **had been eating** tasty food.*
Past Perfect Simple	*We **had eaten** tasty food.*	*She said that they **had eaten** tasty food.*
Past Perfect Continuous	*We **had been eating** tasty food.*	*She said that they **had been eating** tasty food.*

ALDAKETAK MODALETAN

Direct Speech	Reported Speech
can	**could**
may	**might**
must / have to	**must / had to**
will	**would**

ALDAKETAK ZENBAIT HITZ ETA ESAMOLDETAN

Direct Speech	Reported Speech
now	then
today	that day
tonight	that night
yesterday	the previous day / the day before
last week	the previous week / the week before
a month ago	the previous month / the month before
tomorrow	the following day / the day after / the next day
next week	the following week / the week after
here	there
this / these	that / those

Norbaitek esandakoa kontatzeko erabiltzen da, baina pertsona horrek erabilitako hitz berberak aipatu gabe.

REPORTED STATEMENTS

Norbaitek esan berri duena orainaldian konta dezakegu. Horretarako nahikoa da komatxoak kentzea, izenordain subjektua aldatzea eta aditzaren pertsona ere bai.

"I am hungry."
*She **says** that **she is** hungry.*
(Gose dela dio.)

Ohikoena, dena dela, zehar estiloko menpeko perpausaren aurrean doan aditza (normalean **say** edo **tell**) lehenaldian jartzea da. Eta orduan menpeko perpauseko aditzak atzera-jauzia egingo du (*Present Simple* aldia *Past Simple*, aldira pasatuko da, hau *Past Perfect Simple* deiturikora, etab.).

Komatxoak kentzeaz gain eta aditz-denborak aldatzeaz gain, ordea, beste aldaketa batzuk ere beharrezkoak dira; horrela bada, izenordainek eta denbora- nola leku-esamoldeek ere aldaketak jasango dituzte.

Zehar estiloari sarrera ematen dioten aditz arruntenak **say** eta **tell** dira. Azkenak **to** preposiziorik gabeko zeharkako osagarria darama beti; lehenak, **say** aditzak, alegia, aukeran du zeharkako osagarria eraman ala ez, baina badaraman kasuetan, preposizio hori erabili beharra du. Menpeko perpausa **that** juntagailuaz hasten da, baina ingeles mintzatuan isildu egiten da.

"The smell is strong, but pleasant," he said.
*He **told us** (that) the smell was strong, but pleasant.*
*He **said** (that) the smell was strong, but pleasant.*
*He **said to us** (that) the smell was strong, but pleasant.*
(Usain sendoa, baina atsegina zela esan zuen.)

Perpausak egia orokorra adierazten duenean, aditz-denborak ez du inolako aldaketarik jasaten.

"Smells trigger memories," he said.
*He **said** that smells **trigger** memories.*
(Usainek oroitzapenak dakartzatela esan zuen.)

REPORTED QUESTIONS

Ingelesez bi motatako galderak daude:

- **Yes / No questions** motakoak, hots, "bai" edo "ez" batekin erantzun daitezkeenak. Era honetako galderak zehar estilora aldatzeko **ask** aditza eta ondoren **if** edo **whether** erabiliko dugu. Orain galderak perpaus arrunt izatera pasa direnez, ez dago subjektu-aditz arteko hurrenkera-aldaketarik, ez dago galdera-markarik, ez eta komatxorik.

  "Do you like chocolate?" they asked the girl.
  *They **asked** the girl **if / whether she liked** chocolate.*
  (Txokolatea gustatzen al zitzaion galdetu zioten neskari.)

- **Wh- questions** motakoak galdetzaile batekin hasten direnak ditugu (**what**, **who**, **where**, **when**, **why**, **whose**, **how**, etab.), eta zehar estilora pasatzerakoan, galdetzailea + subjektua + aditza hurrenkera erabiliko dugu eta galdera-marka nahiz komatxoak alde batera utziko ditugu.

  "What is your favourite flavour?" Frank asked.
  *Frank **asked what** my favourite flavour **was**.*
  (Nire zapore gustukoena zein zen galdetu zuen Frankek.)

REPORTED ORDERS

Aginduak zehar estilora pasatzeko, aginteraren ordez infinitiboa erabiliko dugu. Baina infinitiboaren aurretik, agindua adierazten duen aditz bat hautatuko dugu, esate baterako, **tell** eta **order**, atzean zeharkako osagarria daramala. Badira beste aditz batzuk ere egitura hau jarraitzen dutenak: **ask** eta **beg** aditzak eskaerak adierazteko, **invite** gonbitea luzatzeko edo **warn** norbaiti ohartarazpena egiteko.

"Stop staring at me," the mother told her son.
*The mother **ordered** her son **to stop** staring at her.*
(Adi-adi begira ez jarraitzeko agindu zion amak semeari.)

Ezezko perpaus bat dugunean, **not** kokatuko dugu **to** partikularen aurrean.

"Don't tell anybody," she begged us.
*She **begged** us **not to tell** anybody.*
(Inori ez kontatzeko erregutu zidan.)

REPORTED SUGGESTIONS

Aurrena subjektua eta **suggest** nahiz **recommend** aditzak lehenaldian jarriko ditugu, eta ondoren pertsona horrek iradokitakoa adieraziko dugu. Iradokizunak bi eratara pasatzen dira zehar estilora:

- **That** partikularekin hasten den perpaus bat osagarri zuzentzat erabiliz, subjektua eta aditza oinarrizko forman dituela. Kasu honetan iradokizuna beste pertsona batzuei zuzendua dago.

  "Take the shortcut," he recommended.
  *He **recommended that we take** the shortcut.*
  (Laburbidea hartzeko aholkatu zigun.)

- Gerundioa erabiliz, subjekturik zehaztu gabe, iradokizuna egiten duen pertsona ere proposamenaren barruan baitoa.

  "Let's make chocolate biscuits!" she suggested.
  *She **suggested making** chocolate biscuits.*
  (Txokolatezko gailetak egitea iradoki zuen.)

➲ *REPORTING VERBS*

Zehar estiloari sarrera emateko gehien erabiltzen diren aditzak **say**, **tell** eta **ask** dira. Hauek mezua soilik helarazten digute, informazio gehiago gaineratu barik. Baina hiztunaren intentzioa edo erabilitako doinua ere azaldu nahi baditugu, aipatutakoez gain **reporting verbs** ugari erabil ditzakegu:

- Baieztapenetarako: **admit**, **agree**, **announce**, **answer**, **apologise**, **boast**, **claim**, **complain**, **declare**, **deny**, **explain**, **inform**, **insist**, **mention**, **offer**, **promise**, **refuse**, **remind**, **reply**, **state**
- Galderetarako: **enquire**, **request**, **want to know**, **wonder**
- Aginduetarako: **demand**, **order**, **shout**, **warn**
- Erreguetarako: **beg**
- Iradokizunetarako: **advise**, **invite**, **recommend**, **suggest**

Aditz horietako batzuek infinitiboa ala gerundioa onar dezakete ondotik, baina menpeko perpaus batez jarraiturik ere joan daitezke.

- Infinitiboa: **promise**, **agree**, **refuse**, **advise**, **remind**, etab.
  *Emma **promised to cook** a mouth-watering stew.*
  (Ahoa bete ur utziko zigun gisatua prestatuko zigula agindu zigun Emmak.)
- Gerundioa: **deny**, **admit**, etab.
  *She **admitted having** a weakness for chocolate.*
  (Txokolatearekiko zaletasuna zuela onartu zuen.)

5. Families

ERLATIBOZKO PERPAUSAK

DEFINING RELATIVE CLAUSES

Uses	Examples
who and **that** refer to people	*She is the girl **who** / **that** lent me* The Kite Runner. (Hura da *Kometak Zeruan* utzi zidan neska.)
which and **that** refer to objects	The Kite Runner *is a book **which** / **that** I want to read.* (*Kometak Zeruan* da irakurri nahi dudan liburua.)
whose refers to possession	*Amir is a boy **whose** father is very strict.* (Aita oso zorrotza duen mutikoa da Amir.)
when and **that** refer to a moment in time	*I'll never forget the day **when** / **that** the war broke out.* (Inoiz ez dut ahaztuko gerra hasi zen eguna.)
where refers to a particular place	*I emigrated to a place **where** I can be safe.* (Seguru egon naitekeen herri batera emigratu nuen.)

NON-DEFINING RELATIVE CLAUSES

Uses	Examples
that cannot replace **who** or **which**	*Baba, **who** is Amir's father, played soccer as a child.* (Baba, Amirren aita dena, umetan futbolean ibilitzen zen.)

Erlatibozko izenordain edo adberbio batez hasten diren menpeko perpausak dira, eta bi motatakoak daude: **defining** (murrizgarriak) eta **non-defining** (ez-murrizgarriak).

DEFINING RELATIVE CLAUSES

Murrizgarriek aurrekariari buruzko ezinbesteko informazioa ematen digute. Hauek izan ezean, perpausaren esanahia osatu gabe geldituko litzateke.

- Erlatibozko izenordain hauek: **who** (pertsonak), **which** (gauzak) eta **that** (pertsonak eta gauzak) ken daitezke, menpeko perpausaren subjektuak ez badira.
- **Whose** (jabetza) ezin da ez kendu, eta ez **that** bategaz ordeztu ere.
- **When** (denbora) ken daiteke menpeko perpauseko subjektu-funtzioa ez badu, eta baita bere ordez **that** erabili ere.
- **Where** (lekua) ezin da **that** bitartez ordeztu eta gutxitan ken daiteke.

+ **Why** (arrazoia) ken daiteke eta baita **that** bitartez ordeztu ere.
+ **Whom** preposizioen atzean erabiltzen da, baina normalean kendu egiten da eta preposizioa aditzaren gibelera pasatzen da.

  *He is the person **to whom** you need to talk.*
  *He is the person you need to talk **to**.*
  (Hura da solasean aritzeko komeni zaizun pertsona.)

NON-DEFINING RELATIVE CLAUSES

